

ETB - MEZA SANTUA HERRERATIK: 1

«B» Urteberri: 1996-XII-31/1997-I-01
 (Do) Juan Jose Manzisidor, Herrera
 Parroki abesbatza: Pako Laskonategi
 Organojolea: Pello/Alitxu Mendizabal

Hasierako aurkezpena

Urte berriaren hasieran, jaso ezazue gure zorion-agurrik beroena! Donostiako Herreratik doakizue gure agur hau. Irun aldera doan bide nagusian, Donostiak Pasaiarekin muga egiten duen ertzean dago Herrera. Ikuspegi orokor honetan ikus daitekeenez, auzo guztiz berria da, orain daukan itxuran behintzat.

Hala ere, esan beharra dago, XVII. mende hasierako paperetan egiten dela Herreraren aipamena. Baina askoz zaharragoak dira oraindik, inguru hauetako baserriak eta jendeak. Nolanahi ere, Herrerak ez du egiazko bere historia berezirik izan gure mende honen hasiera arte.

Altzako herriaren behe aldeko auzoa izan da betidanik, itsasertzean kokatua. Altzako herria esan dugu; gaur egun Altza Donostiako udalerrian sartua badago ere, azken berrogeita hamasei urtetako kontua da hori. Lehenago udalerrri zen Altza, udalerrri zabala. Hasi Erreteriatik eta Astigarragaraino zabaltzen zen, Intxaurren eta Ategorrieta ere barruan hartuz; aurretik, berriz, itsasoraino iristen zen.

Eta nondikakoa ote du «Herrera» izen hori? Diotenez, burdina lantzeko ola zegoen, Somorrostitik itsasoz ekartzen zuten burdin-mea edo -minerala lantzeko, eta hortik datorkio «La Herrera» izena. Lurralde oso leku txikia eta bildua da, baina dentsitate haundikoa; 6.500 biztanle inguru ditu. Lanbideari dagokionez, garai batean itsasoak lehorrean sortzen dituen lantegietan aurkitzen zuten gehienbat bizibidea. Gaur egun bada industriaren bat edo beste, baina hiriburuko zerbitzuak dira askoren bizibide.

Auzo honen benetako historiak azken hirurogeita hamar urteak hartzen ditu, 1929an parrokia egin zenez geroztik, alegia. Parrokia eta ondoan Lasalletarren Anaidiak zuzentzen zuen ikastetxea izan dira, hasiera batean behintzat, Herrerako auzo honen bihotza eta arima. Baina, auzoa egiten eta indartzen joan den heinean, heldutasuna lortzen joan da giza mailan. Horregatik, gaur egun bada hemen, bidezkoa denez, era askotako gizarte-elkarerik, auzoari bere nortasuna ematen dionik.

Auzoaren hazkuntza nabarmenena azken berrogei urteotan gertatu dena da. Jendetzaren ugaritzea zenbaterainokoa izan den konturatzeko, aipa ditzagun datu batzuk: orain 100 urte, Alzako udalerrian 4.000 biztanle eskas bizi ziren lurralde hartan bertan, gaur egun 85.000 inguru bizi dira. Eta orain 50 urte Herrerak zituen 2.000 (?) bizilagunak, gaur egun 42.000 biztanle bihurtu dira.

Baina datorren igandean izango dugu aurkezpen honekin jarraitzeko eta xehetasunak emateko egokiera.

* * *

Gaurkoz honetan utz dezagun, eta hasiera eman dezaiogun Urte Berri jaieguneko Meza Santuari. San Luis Gonzaga parrokia honetako apaiz arduraduna, Juan Jose Manzisidor, izango dugu batzarburu. Kristau-herriarekin batera, parroki abesbatza arituko da kantuan, Pako Laskonategi kantu-zuzendari dela. Organoan arituko direnak, berriz, Pello eta Alitxu Mendizabal aita-alabak ditugu.

Bukaerako agurra

Eguberri-jaietako liturgi ospakizunek halako giro pozgarrian murgiltzen gaituzte. Jainkoaren Semearen gizon egitea albiste ona dugu. Eta ez fededunok bakarrik, baita mundu guztiko gizon-emakumeek ere. Guztiak maite ditu gure Jainkoak. Guztiei opa die pakea eta bizia.

Mezu hori bera azpimarratzen du gaurko liturgiak ere. Jainkoaren bedeinkapena eta maitasuna geurekin ditugula ematen diogu hasiera urte berriari. Eta urte guztian zehar geurekin izango ditugu maitasun eta bedeinkapen horiek. Hor oinarritzen da gure itxaropena. Jainkoa gurekin dugula jakinik, adoretzu aurpegi eman dezaiokegu urte berriari.

Donostiako Herreratik eskaini dizuegu gaurko Meza Santua. Datorren igandean ere hemen bertan izango gaituzue, Jainkoa lagun.

Urte Berri on bihotzez guztioi!

ETB - MEZA SANTUA HERRERATIK: 2

«B» Eg II.a: 1997ko urtarrilaren 4/5
(Do) Koldo Katxo, Jesusen Lagundikoa
Parroki abesbatza: Pako Laskonategi
Organojolea: Pello/Alitxu Mendizabal

Hasierako aurkezpena

Urte berriaren lehenengo igande honetan, Donostiako Herreratik agurtzen zaituztegu bigarrenaz. Aurreko aldiari argitu genuen, 1940az geroztik Altzarekin batera Donostiako udalerrian sarturik badago ere, ordurarte Altzako udalerraren auzo izan izan dela betidanik.

Orain dela 150 urte hasi zen Herrerako auzo honen aldakuntza sakona: 1845ean hemendik barrena egin zen Gasteiztik Frantziako mugara doan errepide nagusia. Hogei urte geroago egin zuten Norteko trenbidea. Eta handik berrogeita hamar urtera, «Topo» deritzan bide estuko trena, hau ere hemendik barrena igarotzen dena.

Ulertzekoa denez, errepide eta trenbideek, alde batetik, eta itsasoko kai ondoan egoteak eta Donostiako hiriaren hazi nahiak, bestetik, bizia eman zioten ingurune honi. Baina 1950az geroztik, eta, batez ere, 1962ko Donostiako Plan Orokorrearekin, halako lehertze izugarri bat etorri da. Ordurarte han-hemenka baserri edo etxe-multzo txikiak besterik ez zeuden tokian, etxadi eta eraikuntza haundiak eta ugariak egin dira nonahi.

Honen adibiderik nabarmenena **Bidebietako Parkea** deritzanarekin gertatutakoa da. Orain hogeita hamabost urte Bidebietako jauregia besterik ez zena, bere zuhaitzi eta lurrekin, orain auzo barruan nortasun berezia erakusten duen 400 bizitzako etxadia dugu, herri txiki baten antzeko bihurtu dena. Bi errepideren erdian, bizileku atsegina egin dute. Eta eskertzekoa da, lehenengo era askotako zuhaitzak gordetzeko izan duten ardura.

Errepide nagusiak bi zati egiten du Herrerako biztanlegoa. Hori asko ez dela, Donostiako saihezbideak eraginik, desagertu egin ziren lehenengo San Luis eliza, ikastetxea, frontoia, etabar. Jipoi gogorra hartu zuen horrekin. Oso zail gertatzen zaio horrela bere nortasuna emango dion bizitza eraikitzea. Baina herri gaztetan gertatu ohi denez, bizi-nahi eta bizi-indar izugarria nabari da hemen. Ez dago ikusi besterik zenbat giza elkarte dagoen eta nolako bizitasunaz ari diren herrigintzan.

1970. urtean **Herri Ametsa Ikastola** sortu zuten, parrokiaren babesean; eta ondoren **Herri-pe** izeneko elkarte, Herrera eta Altzako herri-arazoez arduratzeko. Sormen haundikoa izan da **Herrerako Kirol Elkarte**, Herrerako Krosa eta festak ere antolatzen. Hor dago **Euskal Giroa Elkarte**, kirol, kultur, etabarrei begiratzen diena: hitzaldi eta mahai-inguruak, gastronomia, futbol-sala, pilôta, xakea, boloak, mus-txapelketa, danborrada, herri-festak, mendirako irtenaldiak eta beste mila gauza antolatzen dituen. Ekintza horien guztien bateratze-lana **Auzotegi** elkarteak egiten du.

Azpimarratzekoa da, baita ere, **Herrerako Sporting Futbol Taldea**. Ia 200 gaztetxo eta gazte biltzen ditu 11 futbol-taldetan, eta inguru honetako 8 ikastetxerekin harremanetan egiten du lan. Gainera, aipagarria bada kirol-munduan egiten ari diren lana, interes haundiagoa du oraindik gazte eta gaztetxo hauen giza hezieraz duten ardurak.

Eta, besteak beste, parrokiaren inguruan sortuak dira **Aterpea** izeneko Zaharren Egoitza, eta **Lagunbide**, familien kultur eta atsedeen-elkarte. Eta denen gainetik, ia 75 urtetan bizirik irauten duen **abesbatza** dago, auzo honetan musikarako dagoen zaletasuna adierazten duena. Abesbatzaren oinarria Lasalle ikastetxean garai bateko Anai Pedrok zuen haurren abestaldea izan da. Baina abesbatzaren arima eta biziemailea Frantzisko Jose Laskonategi izan da, 1940an zuzendaritza hartu zuenez geroztik.

* * *

Honetan utz dezagun aurkezpen hau, eta sar gaitezen Meza Santura. Gaurkoan batzarburu Aita Koldo Katxo izango dugu, bailara osoko gazteen pastoraltzaz arduratzen den Jesuita. Kantuan, kristau-herriarekin batera, parrokiako abesbatza arituko da, Pako Laskonategi zuzendari duela. Organoan, berriz, Pello Mendizabal eta honen alaba Alitxu izango ditugu.

ETB - MEZA SANTUA HERRERATIK: 3

«B» Erregeena: 1997ko urtarrilaren 5/6
(Do) Ignazio Esnal, Bidebietako parrokoa
Parroki abesbatza: Pako Laskonategi
Organojolea: Pello/Alitxu Mendizabal

Hasierako aurkezpena

Donostiako Herreran gaituzue gaur hirugarrenez. Agerkunde edo Erregeen jaiegun honetan San Luis parrokiatik bidaltzen dizuegu guztioi gure agurrik beroena. Aurreko bi egunetan saiatu gara Herrerako auzo honen aurkezpen orokorra egiten.

Gaurkoan, batez ere, parrokiaren berri eman nahi dizuegu. Oraindik oso laburra den Herreraren historia egitekoan ezinbestekoa da herri-nortasunaren ardatz gisa, besteak beste, parrokia ipintzea. Hasieratik san Luis Gonzaga zaindari izan duten eliza eta ikastetxea izan baitira auzo honetako asmo eta gizarte-bizitzaren arima. Gure egunotan, bidezkoa denez, era askotako gizarte-mugimenduak daude gazte eta helduen proiektu eta egitarauen sortzaile eta antolatzaile.

Herrerako kristau-herriaren gaurko eliza hau berria da; ez ditu oraindik 25 urte. Honen aurretik bazen beste eliza bat, eta jakingarria da zer-nolako hasiera izan zuen. Auto-istripu baten ondorioz sortu baitzen.

Istripu hartan bi auto Herrerako zubi famatutik behera erori ziren eta, ondorioz, bi lagunek heriotza aurkitu zuten: Araluze familiako neska gazte batek eta Luis Zappinok. Bizirik atera zen honen emazteak, Teresa Barkaiztegik, gertaera haren gogoangarri eliza txiki bat eta ikastetxea eraiki zituen, istripua gertatutako leku hartan bertan. Hori 1907an izan zen. Eta hildako bere senarra Luis izanik, san Luis Gonzagaren zaindaritzapean jarri zituen.

Handik hogeit bat urtera, biztanlegoa ugaritzen ari zela eta, eliza txiki hura parrokia egina izan zen. 1929ko otsailaren 3an inauguratu zuten. Horretarako, lehenengo haunditu egin behar izan zuten; eta geroago, 1950ean, eraiki zuten dorrea. Baina, Donostiako saihezbidea zela eta, bota egin zituzten eliza, ikastetxea eta frontoia. 1972. urtea zen.

Eta hilabete batzuetan elizako zerbitzuak behin-behineko etxepe batean nolabait egiten aritu ondoren, oraingo eliza honetara aldatu ziren. Lehenari jarraituz, oraingo honek ere san Luis Gonzaga du zaindaria. Ikus daitekeenez, ez da estilo zaharreko eliza; eta ulertzekoa da. Lokal hau zinema-areto izateko pentsatua izan baitzen; eta gero eliza bihurtua izan da.

Gaur egun 1.600 familia eta 6.500 biztanle inguru ditu parrokiak oso leku txikian. Elizatik punturik urrutienara ez da 500 metrora egongo. Nolanahi ere, azken berrogeita hamar urteotan, sei parrokia berri sortu dira, hasierako Herrerako parrokia hartatik; eta 2.000 eliztar haiek 42.000 bihurtu dira gaur egun.

* * *

Hau dugu, beraz, gaurko Meza Santua emango duguneko eliza. Ignazio Esnal, hemen alboan dagoen Xabierko San Frantziskoren parrokiako apaiz arduraduna, izango dugu gaurkoan batzarburu. Kantuan, kristau-herriarekin batera, parrokiako abesbatza arituko da, Pako Laskonategi, zuzendari duela. Oraganoan, berriz, Pello eta Alitxu Mendizabal, aita eta alaba izango ditugu.

Bukaerako agurra

Eguberrialdian elkarri erregaliak egiteko ohitura da gure artean -eta beste leku askotan ere-. Ekialdetik Belena etorri omen ziren errege magoek Jesus Haurrari egin zizkioten oparietan oinarritzen da, noski, ohitura hori.

Gaur egun, gure arteko erregalien nondik norakoa erabat galtzeko arriskua daukagu. Izan dezagun hau gogoan: Jainkoa da, bere maitasunean, guri eta gizadi osoari erregalirik haundiena eta ederrena egin diguna: bere Semea eman digu Salbatzaile. Berari esker itxaropen argitsua dugu geure bizitzan. Horregatik, gure barneko pozak eraginik, bidezkoa da guk ere elkarri opariak eta erregaliak egitea.

Gaurko honekin bukatu dugu Donostiako Herreratik eskaini dizkizuegun Meza Santuen emankizuna. Datorren igandean Iruñean izango gara, Jainkoa lagun, Asisko san Frantzisko parrokiari. Handik eskainiko dizuegu Meza Santua.

Gaurko jaieguna eta astea ere ondo igaro ditzazuela. Agur eta datorren igandera arte.

Bukaerako agurra

Eguberritako misterioaren muina kristauontzat honetan dago: Jainkoaren Semea gizon egin dela, gure arteko bat, alegia, gu Jainkoaren seme eta alaba izatera irits gaitezen. Hori gogoratzen zigun gaurko Ebanjelioak: Jainkoaren Seme gizon egina onartzen duten guztiei, Jainkoaren seme-alaba izateko eskubidea ematen zaiela.

Seme edo alaba izateak, ordea, Jainkoaren familiako kide izatea esan nahi du, Jainkoaren bizi betean parte izatea; betiko bizitza zoriontsua eskuratu ahal izatea.

Eguberri-mezu honek pozez bete gaitzala eta elkarren senide izateko bihotz berria eman dezaigula.

Donostiako Herreratik, san Luis parrokiatik, eskaini dizuegu Meza Santua. Bihar, Agerkunde edo Erregeena ospatzen dugu, eta hemen izango gaituzue hirugarren Meza zuekin batera ospatzeko asmoz.

Igandea ondo igaro, eta bihar arte, Jainkoa lagun!

Imágenes que hay que tomar para realizar los vídeos de Herrera

- Imágenes de conjunto de la zona, pero distinguiendo las tomas:
 - Herrera propiamente dicha.
 - Si fuera posible, imágenes que realacionen a Herrera con San Sebastián.
 - Desde Alza, toda la ladera del monte, tratando de indicar parte de la zona que pertenecía a Alza antaño, y terminando en Herrera.
 - Imágenes del mar con el puerto aterrizando en Herrera.
 - Imágenes de barcos pesqueros y actividades de puerto.
 - Imágenes de Herrera y Bidebieta (las torres) continuando hacia el monte y el mar.
 - Imágenes de la parte de Herrera, al otro lado de la carretera general.
 - Imágenes del parque de Bidebieta (Gaiztarro), destacando algunos árboles del parque. Detalles también de oficinas y sector de servicios.
- Algún plano o mapa zonal donde se pueda acotar el territorio perteneciente al conjunto de Herrera, por un lado, y el territorio de la parroquia de San Luis.
- Algún plano o mapa zonal de Alza de antaño, o donde se pueda acotar el territorio que abarcaba Alza antaño.
- Algunas fotografías históricas de Herrera antigua: la antigua parroquia, el colegio san Luis, el puente...
- Fotos de Herrera antigua, cuando el agua del mar llegaba hasta Gaiztarro...
- Fotos, si hubiera, de Herrera antigua en cuanto a casas y población...
- Imágenes de la carretera general y de la que lleva a Trincherpe, haciendo ver cómo se localiza el barrio, y la división que crea la carretera general.
- Imágenes del ferrocarril del Norte.
- Imágenes del ferrocarril del Topo, con su túnel, etc.
- Algunas imágenes de las entidades sociales: Club Deportivo Herrera (15"), Herri-pe (15"), Auzotegi (15"), Euskal Giroa (1'), y C.D. Sporting de Herrera (1'). Sus sedes sociales, locales, trofeos...
- Exteriores de la parroquia actual (!), pero encuadrándola en su entorno, tanto por el lado del parque, como por el lado de la carretera.
- Detalle de la puerta de entrada de la iglesia.
- Imágenes de fotos, etc., que interese tomar y utilizar de la sacristía y despachos...

Sugerencias para realizar el primer vídeo de Herrera (31-XII-96/01-I-97)

1. 25" Panorámica de Herrera, comenzando por Donostia y terminando en Herrera.
2. 11" (= 36") Panorámica de la parte nueva de Herrera.
3. 29" (= 1'05") Algunas fotos antiguas de Herrera de tiempos pasados.
4. 22" (= 1'27") Panorámica comenzando por Alza y bajando a Herrera, para terminar mostrando el mar y volviendo a Herrera.
5. 21" (= 1'48") Plano o mapa donde se indique el territorio que abarcaba Alza antaño: desde Rentería a Astigarraga, cogiendo la parte de Intxaurreondo y Ategorrieta, y llegando de frente hasta el mar por Mendiola.
6. 21" (= 2'09") Imágenes de archivo: ferrería donde se está trabajando el hierro.
7. 11" (= 2'20") Mostrar que Herrera es, en cuanto a territorio, muy pequeño, "un pañuelo".
8. 12" (= 2'32") Mostrar imágenes de barcos pesqueros y actividades de puerto.
9. 10" (= 2'42") Alguna imagen de industria; imágenes de oficinas y sector de servicios.
10. 30" (= 3'12") Fotos de Herrera antigua, con la parroquia, el colegio, el puente, el frontón...
11. 23" (= 3'35") Imágenes de calles, casas... y alguna entidad social "Euskal Giroa" o "Herri-pe"...
12. 18" (= 3'53") Panorámica de Herrera y entorno, mostrando el enorme crecimiento de toda esta zona.
13. 27" (= 4'20") Continuar con imágenes de la superpoblación de toda esta zona.
14. 12" (= 4'32") Aproximarse a la parroquia en "zoom"; meter algún detalle de la puerta de entrada a la iglesia; y pasar a la grabación en vivo.

Sugerencias para realizar el segundo vídeo de Herrera (04/05-I-97)

1. 30" Imágenes panorámicas de Herrera, con alguna referencia a Alza.
2. 8" (= 38") Reproducción de foto antigua de Herrera (se habla de 1845).
3. 10" (= 48") Imágenes de la carretera a Francia.
4. 9" (= 57") Imágenes de la vía del tren RENFE.
5. 8" (= 1'05") Imágenes del ferrocarril TOPO.
6. 18" (= 1'23") Imágenes de Herrera como apéndice de San Sebastián.
7. 15" (= 1'38") Plan general de San Sebastián, relativo a esta zona; si no, imágenes del entorno de Herrera como zona superpoblada.
8. 15" (= 1'53") Continuar con imágenes del entorno de Herrera.
9. 19" (= 2'12") Imágenes del **Parque de Bidebieta**, antes de la urbanización.
10. 13" (= 2'25") Imágenes de conjunto del actual **Parque de Bidebieta**.
11. 14" (= 2'39") Situar el parque entre dos carreteras (6"); y mostrar, a continuación, algunos ejemplares de árboles del parque (8").
12. 9" (= 2'48") Mostrar cómo la carretera general divide en dos partes Herrera.
13. 24" (= 3'12") Imágenes de la variante que desemboca en Herrera (15"); fotos de la destrucción de la antigua iglesia, colegio y frontón (9").
14. 20" (= 3'32") Nuevas imágenes, más de detalle, del actual **Parque de Bidebieta**, como pueblo joven.
15. 10" (= 3'42") Foto de la **Ikastola Herri Ametsa** que desapareció.
16. 9" (= 3'51") Imágenes de **Herri-pe**.
17. 10" (= 4'01") Imágenes de **Herrerako Kirol Elkartea**.
18. 29" (= 4'30") Imágenes de **Euskal Giroa Elkartea**, exteriores e interior.
19. 7" (= 4'37") Imágenes de **Auzotegi**.
20. 38" (= 5'15") Imágenes de **Club Deportivo Sporting de Herrera**. Habrá fotos de alevines, trofeos...
21. 9" (= 5'24") Imágenes de **Aterpea** (residencia de ancianos).
22. 9" (= 5'33") Imágenes de **Lagunbide** (lugar de encuentro de las familias).
23. 10" (= 5'43") Alguna foto del coro parroquial (que tiene 75 años de existencia).
24. 10" (= 5'53") Foto del Hermano Pedro, de La Salle, preparador de tiples.
25. 13" (= 6'06") Foto de Francisco José Lasconategui dirigiendo al coro.
26. La parroquia por el exterior; después, la puerta de entrada de la iglesia; y paso al interior para comenzar la grabación en vivo.

Sugerencias para realizar el tercer vídeo de Herrera (05/06-I-97)

1. 26" Imágenes panorámicas de Herrera.
2. 21" (= 47") Algunas imágenes de la parroquia: exteriores.
3. 14" (= 1'01") Alguna foto del conjunto iglesia-colegio antiguos.
4. 15" (= 1'16") Imágenes de **Euskal Giroa Elkarte** y de **Auzotegi**.
5. 9" (= 1'25") Otra toma exterior de la parroquia actual.
6. 13" (= 1'38") Imágenes de la carretera general donde tuvo lugar el accidente y se construyó la antigua iglesia.
7. 50" (= 2'28") Fotos del puente antiguo donde tuvo lugar el accidente; completar con otras fotos del lugar: colegio, frontón... (pero no de la destrucción de la iglesia); se puede terminar con imágenes actuales de ese lugar.
8. 23" (= 2'51") Fotos de la inauguración de la antigua parroquia.
9. 10" (= 3'01") Fotos de la torre de la antigua iglesia.
10. 9" (= 3'10") Fotos de la destrucción de la iglesia.
11. 16" (= 3'26") Imágenes del **Parque de Bidebieta**, donde se sitúa al parroquia actual; y exteriores de la parroquia.
12. 12" (= 3'38") Interior de la parroquia, y terminar en "zoom" en el mosaico del altar principal: san Luis Gonzaga.
13. 11" (= 3'49") Imágenes interiores de la parroquia, haciendo ver que su destino inicial era para salón de cine.
14. 35" (= 4'24") Imágenes del entorno de Herrera, para hacer ver que es una zona urbana superpoblada.
15. Puerta exterior de la iglesia, y entrar al interior para comenzar la grabación en vivo.